

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

TOKIKO AGENDA 21
HEZKUNTZA ETA EUSKARA
HAUR ETA GAZTERIA

✓ **PROPOSAMENA**

Haurren Etxea sortzea, hurrek eta haien inguruan biltzen diren komunitateak erabili dezaketen txoko goxo, anitz eta askera.

Espazio hau, haurren iritzi eta beharretan oinarrituko da. Aipatu proposamenak, 4 fase izango lituzke:

1.go fasea: Haurren Etxearen proiektua gauzatzeko hasi dadin, Ave Mariako eraikina beharrezko baldintzetara egokitzeko konponketa lanak egitea

2.go fasea: Prozesu Parte-hartzaile bat abiaraztea hurrekin eta komunitatearekin espazioaren antolaketa diseinatzeko.

3.go fasea. Auzolanean amestu eta erabakitakoa, antolatzea: mantenua, kudeaketa eta jarraipen diseinua

4.go fasea: Espazioaren inaugurazioa eta proiektuaren jarraipena

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Proposamenaren azalpenean, haur komunitatearen proiektu kolektibo gisa aurkezten da Haurren Etxea, familia anitzak batuko dituen eta herriaren inguruko erabakietan parte hartuko duena, beti ere haurren parte-hartze demokratikoa eta horizontala praktikara eramanaz.

Beraz, eraikin bat baino gehiago da proposamena. Balorazio teknikoa egiterakoan oinarrian dagoen ideia horri eutsi zaio, eta eraikina, momentuz, alboratu egin da. Izan ere, Ave Maria parkeko eraikina "Sormen Etxea" izango da. Epe luzeko proiektua denez, oraindik ezin da aurreikusi zer erabilera definituko diren. Gainera, eraikin propioa beharrezkoa den jakiteko, hurrekin egin nahi den lana definitzea ezinbesteko da.

Zein politika garatzen da Udaletik haurren esparruan? Galdera horri erantzuten hasteko gonbite egiten du Haurren Etxea proposamenak, eta galdera horren inguruan hausnartzen hastea da lehen urratsa.

Toki administrazioek haur-izaera sustatu beharko genuke. Hau da, haur gisa, pertsona eta herritar gisa, familia-testuinguruetan eta komunitate-inguruneetan duten garapena zaindu beharko genuke. Horretarako, haurrak eskubideen subjektu aktibotzat hartzen dira, hurrek eskubide horiek erabili ahal izatea modu desberdinetan sustatuz.

Hurrez arduratzea da haien beharrak ezagutzea, behar horiei erantzuna emango dieten aukerak sortzea, eta hori guztia haurren oraina eta etorkizuna sustatuz egitea. Arian-arian autonomia-kuotak (erabakietan eta erantzukizunetan) lortzen dituzten neurrian pertsonak bizi eta partekatzen duten ibilbide horretaz arduratu beharko genuke espezifikoki, pixkanaka emantzipatzen doazen neurrian.

Haur-politiken asmoa aztertu eta Hernaniko Udalak berea definitzen hastea da proposamena. Lehen pausoa udal-arduradun tekniko eta politikoak hurrenganako izan behar dugun kezka eta konpromisoa suspertzea da: haurren-izaera partekatu, haiek dituzten beharrak eta eskubideak ezagutu, sortu daitezkeen aukerak aztertu... Hurrek parte hartzeko praktika desberdinetara gerturatzea ere proposatzen da: haurren partaidetzako egitura finkoak eta aldakorak ezagutu.

Hausnarketa fasearekin batera egun haurrentzako bideratuta dagoen udal eskaintza aztertzea proposatzen da. Ondorengo hauek kontuan izanik.

- a. Haurren beharrekiko koherenteak izatea.
- b. Deseskolatzeko logikari jarraitu, eta ez eskola-denborak areagotzeko logikari.
- c. Adin bakoitzari egokitzea.
- d. Helduen gainerako helburu edo asmoen gaintik, ludikoa denak ardatz izaten jarraitzea.
- e. Hezkuntza-kontzeptuaren arabera, haurren garapen integrarean eragina izan nahi izatea.
- f. Eskaintza bideratuaren eta aisialdi librearen arteko oreka bilatzea; baita espazio antolatuen eta librean (herriko plazak, parkeak...kalea, oro har) artekoa ere.

Behin udal barruko lanketa egin ostean, hausnarketa komunitatearekin partekatu eta haurren eskaintza diseinatzeko irizpideak eraikitzen joatea da proposamena. Komunitatea esatean, batik bat, kontuan ditugu haurrekin lan egiten duten profesional eta elkarte ezberdinak eta, azken batean, herritarrak orokorrean. Gainera gure protagonistak diren haurrek ere kontuan izango dira, zuzenean beraiekin lan egitea ere aurreikusten delarik.

Laburbilduz proposatzen da:

2019 urte hasieran udal barne hausnarketa eta lanketa: 4-5 saio gaian aditua den dinamizatzaile batekin.

2019-2020 ikasturtean, komunitateko lanketa: 3 saio horretarako aditua den dinamizatzaile berarekin.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Udal-arduradun tekniko eta politikoekin lanketa: 5.000 €

Komunitatearekin lanketa: 10.000 €

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Udal-arduradun tekniko eta politikoekin lanketa: 2019ko otsailetik urrira

Komunitatearekin lanketa: 2019 urria- 2020 otsaila

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Haurren interesekoak diren gaiak jorratzen dituzten arlo guztiak, hau da, udal barruko kudeaketaz arduratzen direnak izan ezik beste sail guztiak.

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

Proiektu honek hasiera eta amaiera du. Bi urte behar ditu bere garapenerako: 2019 urtea eta 2020. Hausnarketa eta lanketa bat denez, jarraipena izango duela aurreikusten da baina ez bere horretan. Horregatik amaiera duen proiektua da.

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera - Prozesutik kanpo)**

Balorazio teknikoak ALDEKOA da, eta prozesuan aurrera egin dezan proposatzen dugu.